# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

***Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak***

**5.801**

**696/2004 ERABAKIA, irailaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arasur Logistika Plataformako Plan Partziala (Erribera Beitia eta Armiñón) aldatzeko espedientea behin betiko onartzen da.**

AURREKARIAK

Lehena.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren uztailaren 19ko 666/04 Foru Aginduaren bidez hasierako onarpena eman zitzaion Arasur Logistika Plataformako Plan Partziala (Erribera Beitia eta Armiñon) aldatzeko espedienteari. Espediente hori hamabost egunez jendaurrean jartzeko agindu zen eta horretarako dagozkion iragarkiak argitaratu ziren Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALean (2004ko abuztuaren 4a, 89 zenbakia) eta “El Correo” egunkarian (2004ko uztailaren 27a).

Bigarrena.- Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren irailaren 3ko 724/2004 Foru Aginduaren bidez behin-behineko onarpena eman zitzaion plan partziala aldatzeko espedienteari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Urriaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren 89/1997 Foru Dekretuak 4. eta 5. artikuluan eta Diputatu Nagusiaren uztailaren 9ko 127/2003 Foru Dekretuak arautzen dute foru aldundiko diputatuen kontseiluari dagokiola udalerri biei eragiten dieten planak behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Espedientea osatzen duten agiriak aztertuta, Hirigintza Planeamenduaren Arautegiaren 43tik 63ra bitarteko artikuluetan adierazitako zehaztapenak bete eta agiriak agertzen direla ikusi da.

Era berean, espedienteak eragindako udalerri bietan indarrean dauden ordezko arauetan ezarritako aginduak betetzen ditu.

Horregatik guztiagatik, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onarpena ematea Erribera Beitia eta Armiñon udalerrietan kokaturiko Arasur Logistika Plataformaren Plan Partziala aldatzeko espedienteari.

Bigarren.- Ebazpen hau, onartutako hirigintza-araudiarekin batera, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako Sailaren aurrean.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko irailaren 14a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

ARASUR LOGISTIKA PLATAFORMARI BURUZKO PLAN PARTZIALAREN ARAUDIAN BESTE ARTIKULU BAT SARTZEA

4.1.1. Urbanizazioa kontserbatzea.

Kontserbaziorako erakunde bat eratu beharko da ezinbestez, eta erakunde hori izango da izaera publikoko urbanizazioaren kontserbazioaz arduratuko dena.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

***Acuerdos del Consejo de Diputados***

**5.801**

**ACUERDO 696/2004, del Consejo de Diputados de 14 de septiembre, que aprueba definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur, sito en los municipios de Ribera Baja y Armiñón.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral número 666/04, de 19 de julio, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó inicialmente el expediente de modificación del Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur en los municipios de Ribera Baja y Armiñón, ordenándose la apertura de un período de información pública durante el plazo de quince días, que se ha hecho efectivo mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 89, de 4 de agosto de 2004, y en el periódico El Correo, del 27 de julio de 2004.

Segundo.- Durante dicho período no se ha presentado ninguna alegación.

Tercero.- Mediante Orden Foral número 724/2004, de 3 de septiembre, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó provisionalmente el expediente de modificación del Plan Parcial.

FUNDAMENTOS

Primero.- De conformidad con lo dispuesto en los artículos 4 y 5 del Decreto Foral 89/1997, del Consejo de Diputados de 7 de octubre, y Decreto Foral del Diputado General número 127/2003, de 9 de julio, la aprobación definitiva de las Planes que afecten a dos municipios corresponde al Consejo de Diputados de la Diputación.

Segundo.- Analizada la documentación que integra el expediente, se comprueba que contiene las determinaciones y documentos señalados en los artículos 43 a 63 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Asímismo, el expediente cumple las prescripciones establecidas en las Normas Subsidiarias vigentes de los dos municipios afectados.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial de la Plataforma Logística Arasur sito en los municipios de Ribera Baja y Armiñón.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, junto con la normativa urbanística aprobada.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de setiembre de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

INCLUSIÓN DE UN ARTÍCULO NUEVO EN LA NORMATIVA DEL PLAN PARCIAL DE LA PLATAFORMA LOGÍSTICA ARASUR

Artículo 4.1.1. Conservación de la Urbanización.

Será obligatoria la constitución de una Entidad de Conservación que será responsable de la conservación de la urbanización de carácter público.

Urbanizazio publikoa administrazio eskumendunak urbanizazio publikoa jasotzen duen unetik bertatik hartuko du bere gain Erakundeak urbanizazioaren kontserbazioa.

La Entidad de Conservación será la responsable de la conservación de la urbanización desde el momento que la obra de urbanización pública sea recepcionada por la administración competente.

**5.854**

**703/2004 ERABAKIA, irailaren 16koa. Honen bidez Herrilan eta Garraio Saileko eta Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuen idazkariak eta Diputatu Nagusiaren Saileko aholkularitza bereziko langileak izendatzea onartzen da.**

Otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiko Goi Karguen eta Behin-behineko Langileen Erregimena arautzen du. Arabako Foru Aldundiko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoaren ildotik, Diputatuen Kontseiluari dagokio, sailetako titularrek proposatu ondoren, idazkari lanetan aritu direnak eta aholkularitza bereziko eginkizunetan arituko direnak izendatzea. Lehenengoek esandako 4/2000 Foru Arauak 13. artikuluan eta hurrengoetan Konfiantzako Karguetarako ezartzen dituen behin-behineko langileen erregimena izango dute, eta bigarrenek, berriz, Aldundiaren lanpostuen zerrendan behin-behinekoak diren lanpostuak beteko dituzte behin-behineko izaeraz.

Horren ondorioz, Diputatu Nagusiak, Herrilan eta Garraio Saileko diputatuak eta Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuak hala eskatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikuluak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- María Jesús Arsuaga Martínez andrea izendatzea konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Herrilan eta Garraio Saileko diputatuaren Idazkari lanposturako (kodea: 1300.020).

Bigarren.- Blanca María Amigorena Ordoño andrea izendatzea konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren Idazkari lanposturako (kodea: 1300.006).

Hirugarren.- Ana Rosa Núñez Martínez andrea Aholkulari tekniko (kodea: 1122.002) izendatzea.

Laugarren.- Erabaki honek irailaren 16tik aurrera izango du indarra.

Bosgarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko irailaren 16a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.– Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatua, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.

**5.854**

**ACUERDO 703/2004, de 16 de septiembre, que aprueba el nombramiento de las Secretarias del Diputado de Obras Públicas y Transportes y de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente y de personal de asesoramiento especial del Departamento del Diputado General.**

La Norma Foral 4/2000, de 21 de febrero, regula el régimen de los Altos Cargos y Personal Eventual de la Diputación. Asimismo, de conformidad con lo previsto en la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde al Consejo de Diputados realizar, a propuesta de los respectivos titulares departamentales, el nombramiento de las personas que van desempeñar el puesto de secretario/a, a los que corresponde el régimen de personal eventual previsto para los Cargos de Confianza en los artículos 13 y siguientes de la referida Norma Foral 4/2000, así como el nombramiento de las personas que van a desempeñar funciones de asesoramiento especial, que ocupan con carácter no permanente los puestos que, con dicha denominación, figuren en la relación de puestos de trabajo de la Diputación.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, del Diputado de Obras Públicas y Transportes y de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, en ejercicio de las facultades atribuidas por el artículo 8.11 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy

ACUERDO:

Primero.- Nombrar a doña María Jesús Arsuaga Martínez, para desempeñar el puesto de trabajo reservado a Personal Eventual de Confianza de Secretaria del Diputado de Obras Públicas y Transportes, código 1300.020.

Segundo.- Nombrar a doña Blanca María Amigorena Ordoño, para desempeñar el puesto de trabajo reservado a Personal Eventual de Confianza de Secretaria de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, código 1300.006.

Tercero.- Nombrar a doña Ana Rosa Núñez Martínez Técnica Asesora, código 1122.002.

Cuarto.- El presente Acuerdo tendrá efectos a partir del día 16 de septiembre.

Quinto.- Publicar el presente Acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– La Diputada Foral de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.– El Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.

*Foru Aginduak*

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**5.811**

**722/2004 FORU AGINDUA, 2004ko irailaren 2koa, Zigoitiko planeamenduari buruzko ordezko arauetako SAUR-1 sektoreko (Apodaka) konpentsazio batzordea Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko bideratutako espedienteari buruzkoa.**

Zigoitiko udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2004ko uztailaren 28an sarrera izan zuen idazki baten bidez, alkateak hartutako erabaki baten berri ematen dio sail honi. Erabaki horren bidez onartu egiten zen Zigoitiko planeamenduari buruzko ordezko arauetako SAUR-1 sektoreko (Apodaka) konpentsazio batzordea eratzea, baita eskatu ere, batzorde hori Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko.

Hirigintza Zerbitzuak espedientearen forma eta prozedura zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua eman zuen, baita proposatu ere batzordea erregistroan sartzeko.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**5.811**

**ORDEN FORAL 722/2004, de 2 de septiembre de 2004, en relación con expediente de inscripción de la Junta de Compensación del SAUR-1 de Apodaka, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava.**

El Ayuntamiento de Zigoitia, mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, del día 28 de julio de 2004, remite a este Departamento resolución de la Alcaldía aprobatoria de la Constitución de la Junta de Compensación del SAUR-1 de Apodaka, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, solicitando su inscripción en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras del Territorio Histórico de Álava.

El Servicio de Urbanismo eleva informe razonado admitiendo la corrección formal y procedimental del expediente y proponiendo su inscripción en el Registro.